

Aita Martin il yaku



Udazkeneko aizeak orbela iduri, eriotzeak dana daroa.

Urriaren 21'an il yakun Aita Martin. Zea-nuri'ko Ipiña auzunean 1879.VI-27'an jaioa.

Bere guraso Uriarte'tar Jenaro ta Odriozola'tar Erramonak, umetatik asi eben Jaungoikoaren bildurpean, eta goi-deiari erantzunik, Larrea'n eta Naparroa'ko Billafranka'n egin eba-zan praille ikasketak. 1903'an mezakotu zan.

IRAKASLE.—Mezea emonda laster, Iruña'n eta Billafranka'n, gazteai irakasten asi zan. Bai-

ña euskaldunentzat. Euskalerrian ikastetxe bat bear zala-ta, abade ta praille izan nai eben baserritarrentzat Larrea'n eratu eben toki eder bat. Aita Martin izan zan ikastetxe onen lenengo Zuzendari ta Nagusi. Mundu zear, abade ta praille asko dira aren ikasle izanak.

IZLARI.—Aita Martin'en egarri bizia, bazuak eskatzen eutsana, Jaungoikoaren egiak zabaltzea zan. Eleiz-izlaririk, predikadorerik gorenengoa izan da, ugaria, erreza, entzute andikoa: Euskalerrri osoan, baiña batez be Bizkaia'n, konta ezin-ala itzaldi egiña.

LANGILLE.—Etzan geldi egotekoa, Guzt'z lanari emona, etxe ta kanpo, beti bearrean: eleiz-arazoetan, buru-belarri sartuta bizi zan: karmeldar oneras-penak zabaltzen eta alakal egiñik, eleizkizun ederrak asmetan zalea gendun.

EUSKALTZALE.—Euskeraz ondo ekian, erotik azagutzen eban, gai sakon asko errez ta samur azaldurik. Eundaka sermoiak itxi danskuz idatzita: bai ta Loretako il eder bat eta lau-bost irurren eta hederatziurren be. **KARMEN'GO ARGIA**'ren lenengo Zuzendaria be, bera izan zan.

EZAGUTU DOGUNOK.—Ezagutu dogunak beste gauza asko esan gein-kez. Ona bi baakrrik: Lenen, oso Jainko-zale genduan: bigarren, lore-grina-kerabillena. Zenbat lora eder ta mueta askotako landu ta zaindu! Eta lora oneik eleizea apaintzeko ziran. Onen barri ba-dabe Larra-zaleak. Eta lorok bere ari-maren iduri ziran nunbait.

Larogeta bat urte bete-bete eginda il yaku. Bere lurperatzean, jentetza andia izan zan, inguruetako karmeldar jantzi zuridun askoren artean.

Zagoz, Aita Martin, or goian zorientsu: ta munduan ziñala ain maite zenda-zan gure erriak, zaindu egizuz goi-goitik.